

Berotegi-efektuko gasen isurien mugak malgutu ditu Trumpen gobernuak

Berotegi-efektuko gasen isurketari buruzko [plan berria iragarri du EPAk](#), AEBetako Ingurumena Babesteko Sailak. Haren arabera, estatu bakoitzak aukera izango du isuriei mugak eta helburuak jartzeko.

Plan berriak atzera botatzen du Obamarena. 2030erako, isurketak 2005eko mailarekiko % 32tik behera murriztea zen haren helburua, eta, hori lortzeko, estatu bakoitzak bete beharreko neurriak ere zehazten zituen. Besteak beste, eraginkortasun energetikoa areagotzea ez ezik, ikatza energia-iturri berriztagarriekin ordezkatzera behartzen zituen instalazio industrialak. Gainera, karbono dioxidoa atmosferatik erauzi eta metatzeko teknologiak garatzeko asmoa ere aipatzen zen.

Obamaren plana ez zegoen oraindik martxan, aurrera eramateko legediak moldatu behar baitziren.

Orain, baina, dena bertan behera geratu da. Horrenbestez, plan berriak industriei bere horretan jarraitzeko aukera ematen diela salatu dute Trumpen asmoaren aurka dauden zenbait adituk.

Hala ere, berotegi-efektuko gasen isuriak berez gutxitu dira azken hamarkadan, batez ere, ikatzaren ordezkari beste energia-iturri merkeago eta eraginkorrago batzuk erabili dituelako industriei, hala nola gas naturala eta berriztagarriak. AEBetako Informazio Energetikoaren Sailaren arabera, 2005-2017 tartean, % 28 murriztu dira elektrizitate-industriaren isuriak. Alabaina, iaz, azken lau urteetan lehen aldiz, elektrizitate-industriaren isuriak hazi egin direla ohartarazi du Zientzialari Arduratsuen Elkarteak. Trumpen gobernuak iragarritako planaren aurka azaldu dira, elkarte hori bezala, baita ingurumen-arloan dabiltzan beste zientzialari asko ere. ●



Floridako instalazio industrial bat. ARG.: Jabego publikoa.